

## [Orereta] Iñaki Bilbaoren borrokari elkartasuna adierazteko elkartuko dira

---

OARSOALDEA.HITZA.EUS :: 24/08/2021

'Txikito' euskal presoak gose eta komunikazio greban dago. Haren aldarrikapenak babesteko bilkura egingo dute ostegunean, 20:00etan, Herriko Plazan.

Iñaki Bilbao *Txikito* euskal presoak gose eta komunikazio greban da hilaren 6tik (18 egun daramatza). Haren aldarrikapen eta borrokari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egingo dute datorren ostegunean, 20:00etan, Herriko Plazan.

Bere gertukoei azaldu dienez, Topaseko (Salamanca, Espainia) espetxean daramatza hiru asteetan hainbat presio jasan ditu, besteak beste, isolatuko zutenaren mehatxua. Jazarpen horiek direla medio, hilaren 6an komunikazioa eten eta iazko irail eta azaroa bitartean egindako gose grebari jarraipena ematea erabaki du.

<https://2021/08/24/inaki-bilbaoren-borrokari-elkartasuna-adierazteko-elkartuko-dera/>

---

[https://www.lahaine.org/mm\\_ss\\_est\\_esp.php/orereta-inaki-bilbaoren-borrokari-elkartasuna](https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/orereta-inaki-bilbaoren-borrokari-elkartasuna)